

Euskaldunen Egunkariak urtebete

Euskaldunon Egunkaria, 1991-12-06.

Guraso denak ezagutzen ditu lehensemeak berekin dakartzan kezka eta arretak.

Aurrenik, jaiotze dena osorik datorren; belarri, begi, besoak, binaka datozen, koskoilekoak eta guzti. Osoa badator, hatzak mugitzen dituen. Hor ginen erantzule batzu Euskal Herriko lehen egunkari komertzialak plazaratzeko adina gorputz, planta, bazuen begira; eskuez pisatu eta begiez neurtu genuen, ea diagramazio atsegina zuen, tituluak kementsu eta azpituduluak argi agertzen ziren, molditz-letra irakur erraza, argazkiak garbiak. Osotasunean lehen orrialdea tipografikoki erakargarria zen.

Dena ametsetan bezala elkar begira, ea zer!...

Bai, baina kiosko salmenta zen egiazko frogara, egiatan axola zitzaiguna, eta urduri geratu ginen lehen EUSKALDUNON EGUNKARIA herriak berak nola aurkituko ote zuen. Datu hauen zain, Joxemi Zumalabe genuen ikuste puntuan, hau baita horretaz eta beste gauza askotaz gehien arduratu dena; eta entzun genituenak ezin sinetsi, 22 milatik gora igo ziren Euskal Herri osora goizean garaiz zabaldu eta nonnahiko euskaldunak hartu eta ordaindu zituen aleak!

Harriturik geunden!

Hauteskunde batean Euskarak irabazi balu bezala.

Noski, bagenekien hau ezin zela hortan geratu; euskara irakurtzen ez zuten euskaltzaleek ere erosiko baitzuten lehen alea oroigarri bezala... Eta jaisten hasi zen, normala denez; gero, alto!, eta eutsi!, hamabost milatik gora oraindik. Urteak badu kazetaritzan ere ziklo bat: igotzen da otsailean, jaitsi Aste Sainduan, eta errekuperatu orduko ekainean hasten da udako jaitsiera; hemen behean udako opor guztian, irailean berriz bere goia hartzen doan arte. Lortu dugu! EGUNKARIA irakurtzen dute urriaren lehen astean hamabi mila familiatik gora! Euskarak ez du inoiz hainbeste irakurle fidel izan! CIES agentzi ezagunak dionez hegoaldean bakarrik 28.000 irakurle ditugu, baina geure kalkulotan, denera 40.000 inguru bai.

Eta gauzak arreta handiz emanez, Joxemiz gain Joan Mari Torrealdai, eta Pello Zubiria zuzendariarekin Iñaki Uria, Imanol Murua eta hauen inguruan asko ez diren baina oso onak diren 34 kazetari Lasarteko idazkaritzan, eta gero Bilbon 5, Iruñean 3, Gasteizen 2 eta Baionan 4. Hemendik kanpo beste 37; administralgoan, produkzioan, publizitatean eta beste, denera 85 pertsona, denak lanean; lan asko eta zintzo, opor gutxi, hor iraun dute, eta dugu, publizitatearen eskasia handi-larriak pasa baditugu ere, ia sinesten ez dugula, urte osoa. Ondo.

Hau ez zen gertatuko, noski, EUSKALDUNON EGUNKARIAren irakurle fidela, zintzoa, hor izan ez bagenu.

Denon artean bete dugu Euskal Herrian aspaldi egin zuen ametsa.

Orain kandela bat piztu dugu!

Piztuko ditugu gero besteak!